

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2025eko apirila

2025eko apirilean, sarrerak % 26,2 igo dira Euskal AEko landa-ostatuetan, % 64,4 apartamentu turistikoetan eta % 5,4 aterpetxe turistikoetan

2025eko apirilera arte metatutako balantzeak balio positiboak ditu hiru establezimendu motetan, bai sarreretan, baita ostatu-gauetan ere

Euskal AEko **landa-ostatu**etan sarreraren kopurua, aurreko urteko hil beraren aldean, % 26,2 hazi da **2025eko apirilean**, eta ostatu-gauak % 32,1. Urtetik urterako igoera horiekin, apirilean 15.495 sarrera eta 34.457ostatu-gau erregistratu dira. Kontuan izan behar da aurtengo apirilean Aste Santuko egunak sartu direla.

Euskal AEko landa-ostatu

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		gelaka	
	2025/04	m/m-12 (%)	2025/04	m/m-12 (%)	2025/04	2024/04	2025/04	p.p. *	2025/04	p.p. *
EUSKAL AE	15.495	26,2	34.457	32,1	2,22	2,12	27,2	7,2	30,9	6,8
Estatukoak	11.586	24,9	26.430	38,2	2,28	2,06	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.909	30,0	8.027	15,6	2,05	2,31	-	-	-	-
Araba/Álava	3.376	34,0	7.458	55,2	2,21	1,91	24,4	9,8	28,8	11,5
Estatukoak	2.890	30,0	6.419	49,1	2,22	1,94	-	-	-	-
Atzeritarrak	486	63,6	1.039	107,0	2,14	1,69	-	-	-	-
Bizkaia	4.367	45,0	9.478	43,6	2,17	2,19	25,6	7,5	28,0	6,6
Estatukoak	3.025	36,8	7.285	58,0	2,41	2,08	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.342	67,8	2.193	10,3	1,63	2,49	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.752	14,9	17.521	19,4	2,26	2,17	29,5	5,7	34,0	4,6
Estatukoak	5.671	17,2	12.726	24,6	2,24	2,11	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.081	9,0	4.795	7,6	2,30	2,33	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila

M/m12 Behatutako azken hilabete

Data 2025eko

Iturria: Eustat. Establezimendu

Aurreko urteko apirilaren aldean % 30,0 hazi ondoren, Euskal AEko landa-ostatu

Lurralde historikoen arabera, 2025eko apirileko sarreraren urtetik urterako igoerak % 45,0ra iritsi dira Bizkaian, % 34,0ra Araban eta % 14,9ra Gipuzkoan. Ostatu-gauei dagokien

Euskal AEko mota horretako establezimenduen batez besteko egonaldia 2,22 egunekoa izan da apirilean, 2024ko hil berean izandako 2,12 eguneko batez besteko egonaldiaren gainetik. Batez besteko egonaldiak ez du adierazten Euskal AEra etortzen diren bidaiarien egonaldiaren guztizko iraupena, gaua igarotzen duten establezimendu bakoitzean batez beste ematen duten egun kopurua baizik.

Plazen araberako eta logelen araberako okupazio-mailek urtetik urtera ehuneko 7,2 eta 6,8 puntuko igoerak izan dituzte, hurrenez hurren: plazen araberako okupazio-maila % 27,2 izan da eta logelen araberakoa % 30,9.

Apartamentu turistikoei dagokienez, 2025eko apirilean 27.141 sarrera eta 70.740 ostatu-gau erregistratu dira. Aurreko urteko apirilarekin alderatuta, sarrerak % 64,4 igo dira eta ostatu-gauak % 31,2.

Apartamentu turistiko deitzen zaio ustiapeneko enpresa-unitate bakar batek bloke edo multzo gisa eskaintzen duen ostatu-unitate bakoitzari. **Ez dira epigrafe honetan sartzen** erabilera turistikoko etxebizitzak, hau da, helburu turistikoetarako aldi baterako eskaini, merkaturatu edo lagatzen diren etxebizitza partikularrak.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Apirila 2025

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazen arabera		apartamenduka	
	2025/04	m/m-12 (%)	2025/04	m/m-12 (%)	2025/04	2024/04	2025/04	p.p. *	2025/04	p.p. *
EUSKAL AE	27.141	64,4	70.740	31,2	2,61	3,27	41,0	4,2	70,2	5,4
Estatukoak	17.307	70,0	44.185	37,6	2,55	3,15	-	-	-	-
Atzeritarrak	9.833	55,5	26.556	21,7	2,70	3,45	-	-	-	-
Araba/Álava	1.062	32,5	9.470	17,4	8,92	10,07	28,6	2,7	59,8	-13,0
Estatukoak	942	35,1	6.371	17,4	6,76	7,78	-	-	-	-
Atzeritarrak	119	15,5	3.099	17,4	25,99	25,55	-	-	-	-
Bizkaia	19.728	67,5	36.755	49,2	1,86	2,09	44,8	7,0	69,2	19,4
Estatukoak	12.641	74,9	22.443	64,1	1,78	1,89	-	-	-	-
Atzeritarrak	7.088	55,7	14.312	30,5	2,02	2,41	-	-	-	-
Gipuzkoa	6.351	61,8	24.515	15,6	3,86	5,41	42,7	0,4	75,4	-1,1
Estatukoak	3.724	65,2	15.371	18,2	4,13	5,76	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.627	57,4	9.145	11,3	3,48	4,92	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajezko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 36,2 eta ostatu-gau guztien % 37,5 atzeritik etorritako bisitariei dagozkie, 2025eko apirilean urtetik urterako % 55,5eko eta % 21,7ko igoerak erregistratu ondoren, hurrenez hurren.

Apartamentu turistikoetako batez besteko egonaldia 2,61 egunekoa izan da 2025eko apirilean, 2024ko apirilekoa baino laburragoa (3,27 egunekoa izan zen Euskal AE osoan). Araban, establezimendu mota horretako batez besteko egonaldia 8,92 egunekoa izan da, Gipuzkoan 3,86 egunekoa eta Bizkaian 1,86 egunekoa.

Plazen okupazio-maila % 41,0ra iritsi da Euskal AEn; 2024ko apirilean izandakoa ehuneko 4,2 puntutan gainditu du. Apartamentu bakoitzeko okupazio-maila ehuneko 5,4 puntu igo da, eta % 70,2ra iritsi da.

Euskal AEko **aterpetxe-turistikoei** dagokienez, 2025eko apirilean urtetik urtera % 5,4ko igoera izan dute sarrerak; guztira 24.771 izan dira eta 42.222 ostatu-gau. Bizkaian 24.293 ostatu-gau erregistratu dira, Gipuzkoan 16.530 eta, azkenik, Araban 1.399 ostatu-gau.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gauldiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak. Apirila 2025

	Sarrerak		Gauldiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-maila plazaka (%)	
	2025/04	m/m-12 (%)	2025/04	m/m-12 (%)	2025/04	2024/04	2025/04	p.p.
EUSKAL AE	24.771	5,4	42.222	2,4	1,70	1,75	40,6	0,3
Estatukoak	10.337	4,5	17.941	4,9	1,74	1,73	-	-
Atzeritarrak	14.434	6,0	24.281	0,7	1,68	1,77	-	-
Araba/Álava	736	53,8	1.399	58,2	1,90	1,85	32,2	13,7
Estatukoak	644	49,8	1.278	74,8	1,99	1,70	-	-
Atzeritarrak	93	90,0	120	-21,1	1,30	3,13	-	-
Bizkaia	13.400	-5,8	24.293	-7,2	1,81	1,84	45,7	-3,8
Estatukoak	5.429	-12,6	9.859	-12,2	1,82	1,81	-	-
Atzeritarrak	7.971	-0,5	14.434	-3,4	1,81	1,86	-	-
Gipuzkoa	10.634	20,7	16.530	16,7	1,55	1,61	35,5	3,9
Estatukoak	4.264	31,1	6.804	32,2	1,60	1,58	-	-
Atzeritarrak	6.370	14,7	9.726	7,8	1,53	1,62	-	-

p.p.*= aurreko urteko hila bete berarekiko portzentaje zko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetean izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hila bete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2025eko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko apirilean ostatu mota horretako egonaldiaren batez besteko iraupena 1,70 egunekoa izan da Euskal AE osoan, plazen arabeko okupazio-maila, urtetik urtera, ehuneko 0,3 puntu igota eta % 40,6ra iritsita.

2025eko Aste Santua

Landa-ostatuetan, aurtengo Aste Santuan (lau gau, ostegunetik igandera), 2024ko martxoan izan zen Aste Santuaren aldean, Euskal AE osoko sarrerak % 16,4 igo dira; ostatu-gauak, berriz, % 9,8 jaitsi dira.

Lurralde historikoei dagokienez, joera ezberdina izan da. Araban igo egin dira sarrerak eta ostatu-gauak, % 79,7 eta % 10,3, hurrenez hurren; Gipuzkoan, aldiz, 2024ko Aste Santuaren aldean, sarrerak % 19,0 jaitsi dira eta ostatu-gauak % 23,8; azkenik, Bizkaian sarrerak % 47,2 igo dira eta ostatu-gauak % 1,2 jaitsi.

Euskal AEko landa-ostatuetakoko sarrerak, gaudiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2025

	Sarrerak		Gaudiak		Okupazio-mailak			
					plazen arabera		gelaka	
	2025	2025/2024 (%)	2025	2025/2024 (%)	2025	p.p.	2025	p.p.
EUSKAL AE	3.491	16,4	10.408	-9,8	58,6	-4,2	62,0	-6,7
Estatukoak	2.650	-3,1	8.650	-19,1	-	-	-	-
Atzeritarrak	841	217,4	1.758	106,3	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	886	79,7	2.850	10,3	67,3	9,4	71,1	3,3
BIZKAIA	1.276	47,2	3.194	-1,2	61,3	0,4	62,0	-3,6
GIPUZKOA	1.329	-19,0	4.364	-23,8	52,6	-14,0	57,5	-13,7

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2025eko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

2025eko Aste Santuan, plazen arabera okupazio-maila % 58,6koa izan da Euskal AEn, eta logelen arabera % 62,0koa. Zifra horiek aurreko urtekoak baino ehuneko 4,2 puntu txikiagoak dira plazen arabera neurtuta, eta 6,7 puntu txikiagoak logelen arabera.

Apartamentu turistikoen kasuan, 2024ko Aste Santuaren aldean, urteik urterako igoera % 50,4koa izan da sarreretan eta % 24,4koa ostatu-gauetan.

2024ko Aste Santuaren aldean, sarrerak % 62,9 igo dira Bizkaian, % 42,2 Araban eta % 26,0 Gipuzkoan. Ostatu-gauei dagokionez, % 39,9ko igoera izan da Bizkaian, % 19,6koa Araban eta % 7,5koa Gipuzkoan.

Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrerak, gaudiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2025

	Sarrerak		Gaudiak		Okupazio-mailak			
					plazen arabera		apartamentuak	
	2025	2025/2024 (%)	2025	2025/2024 (%)	2025	p.p.	2025	p.p.
EUSKAL AE	4.640	50,4	13.121	24,4	56,8	2,6	83,8	4,7
Estatukoak	3.216	38,3	9.158	15,2	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.425	87,5	3.963	52,4	-	-	-	-
ARABA/ALAVA	254	42,2	1.817	19,6	40,8	4,0	74,4	-15,1
BIZKAIA	3.198	62,9	6.890	39,9	62,9	5,7	83,4	18,0
GIPUZKOA	1.189	26,0	4.413	7,5	57,3	-3,6	88,1	-0,5

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2025eko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Okupazio-maila % 56,8 izan da plazen arabera neurtuta eta % 83,8 apartamentuen arabera. 2024ko Aste Santuaren aldean, balio horiek ehuneko 2,6 puntu handiagoak dira plazen kasuan, eta 4,7 puntu handiagoak apartamentuetan kasuan.

Aterpetxe turistikoei dagokienez, 2025eko Aste Santuan jasotako sarrerak aurreko urteko Aste Santuan jasotakoak baino % 38,1 gehiago izan dira; ostatu-gauak, berriz, % 25,5. Araban sarrerak % 103,0 gehitu dira, Bizkaian eta Gipuzkoan % 36,3. Ostatu-gauak % 65,2, % 24,6 eta % 23,6 igo dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, hurrenez hurren.

Euskal AEko aterpetxe turistikoetako sarrerak, gaualdiak eta okupazio-mailak. Aste Santua (*). 2025

	Sarrerak		Gaualdiak		Betetze-maila plazaka	
	2025	2025/2024 (%)	2025	2025/2024 (%)	2025	p.p.
EUSKAL AE	4.744	38,1	8.241	25,5	58,7	10,5
Estatukoak	2.309	31,4	4.390	26,1	-	-
Atzerriarrak	2.435	45,1	3.850	24,8	-	-
ARABA/ALAVA	190	103,0	338	65,2	58,3	26,3
BIZKAIA	2.846	36,3	4.889	24,6	68,0	13,2
GIPUZKOA	1.708	36,3	3.014	23,6	48,1	6,2

(*)Aste Santua: Ostegunetik igandera (4 gau).

e.p. = aurreko urteko aldi baliokidearekiko aldea ehuneko-puntutan

Data 2025eko Maiatzaren 22a

Iturria: Eustat, Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Azkenik, plazen arabera okupazio-maila % 58,7koa izan da 2025eko Aste Santuan erkidego osoan (aurreko urtean baino 10,5 puntu gehiago); okupazioa % 68,0 izan da Bizkaian (13,3 puntu gehiago), % 58,3 Araban (26,3 puntu gehiago) eta, azkenik, % 48,1 Gipuzkoan (2024an baino 6,2 puntu gehiago).

Metatutako datuak (2025eko urtarrila-apirila)

2025ean, orain arte, 35.221 sarrera metatu dira Euskal AEko **landa-ostatu**etan, eta 77.673 ostatu-gau egon dira; hau da, 2024ko aldi berean baino % 3,3 eta % 0,1 gehiago, hurrenez hurren. Batez besteko egonaldia 2,21 egunekoa izan da, eta aurreko urtekoa 2,27 egunekoa izan zen. Okupazio-mailari dagokionez, plazen arabera % 17,8ra iritsi da eta 2024ko aldi berean % 17,3 izan zen, gelaka neurtzean, berriz, 2024ko % 20,6 gainditzen du eta % 21,7ra iritsi da 2025eko lehen lau hilabeteetan.

Apartamentu turistikoei dagokienez, apirileko metatua 67.202 sarrera erregistratu dira eta 216.712 ostatu-gau. 2024ko lehen lau hilabeteekin alderatuta, % 34,3ko igoera izan da sarreretan eta % 16,8koa ostatu-gauetan. Batez besteko egonaldia 3,22 egunekoa izan da 2025eko lehen lauhilekoan, 2024ko aldi berean, aldiz, 3,71 izan zen. Plazen arabera okupazio-maila % 33,6koa izan da, eta logelen arabera, berriz, % 61,7koa, beraz, 2024ko aldi berean lortutakoak baino % 2,3 eta % 1,6 handiagoak, hurrenez hurren.

Aterpetxe-turistikoei dagokienez, 2025ean igarotako hilabeteetan 58.701 sarrera eta 103.598 ostatu-gau metatu dira, 2024ko aldi berean baino % 5,8 eta % 0,8 gehiago. Batez besteko egonaldia 1,76 egunekoa izan da, aurreko urteko 1,85 egunekoa baino baxuagoa. Plazen arabera okupazio-maila % 28,4koa izan da, 2024ko lehen lau hilabeteetan lortutako % 28,0 baino 0,4 puntu handiagoa.

Informazio-oharra

ETH inkestaren erantzun-tasa **% 91,3koa** izan da landa-ostatuetan, **% 83,4koa** apartamentu turistikoetan eta **% 85,0koa** aterpetxe turistikoetan. Eustatek eskerrak eman nahi dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei, egindako ahaleginagatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62